



Usurbilgo Udala

2026/03/26

## 2026KO MARTXOAREN 26AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

#### Zinegotziak

Jon Mikel Azpiazu Zubeldia  
Ainhoa Arrozpide Landa  
Xabat Beloki Segurola  
Iratxe Begiristain Otegi  
Xabier Aranburu Leiva  
Jose Maria Lizaso Azconobieta  
Oskar Santamaria Picabea  
Maialen Iñarra Arregi  
Xabier Otxoa Muñoz  
Josune Urkola Larrarte  
Petra Romero Pozo

**Idazkaria:** Leire Ucin Soraluze.

**Kontu-hartzailea:** Gorka Lizarraga Erro.

Ez da bertaratu: Ivan Iriondo Axpe.

Usurbilen, 2026ko martxoaren 26an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da batzarburua.

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

### 1.- 2026KO OTSAILAREN 26KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Batzarkideek 2026ko otsailaren 26ko bilkurako akta aho batez onartu dute.



Usurbilgo Udala

2026/03/26

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2026KO OTSAILAREN 16TIK MARTXOAREN 18RA (2026/290-2026/507).**

Alkatetzak 2026ko otsailaren 16tik martxoaren 18ra bitartean (2026/290-2026/507) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- KONTU EMATEA: 2025 EKITALDIAREN LIKIDAZIOA (2026EKLI0001).**

Kontu-hartzaileak 2025 ekitaldiaren likidazioaren kontu eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **4.- KONTU EMATEA: KREDITU ALDAKETA, 2025EKO KREDITU TXERTAKETAK (2026EKKA0001).**

Kontu-hartzaileak 2025eko kreditu txertaketen berri eman du eta batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

## **5.- USURBILGO BAKE EPAILE ORDEZKOA HAUTATZEKO DEIALDIA EGITEA (2026IPE0001).**

Batzarkideek Antolaketa batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

### **“Aurrekariak**

EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzatik jasotako idatziaren ondoren, 2025eko irailaren 25eko Udalbatzarrak Usurbilgo Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia egitea erabaki zuen.

Hautagai bakarra aurkeztu zen, Agustin Esnaola, eta 2025eko azaroaren 26ko Udalbatzarrak Bake epaile titularra izateko proposamena egitea erabaki zuen.

EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzak Agustin Esnaola Usurbilgo Bake epaile titular izendatu zuen eta 2026ko urtarrilaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen izendapena.

Beste hautagairik ez zegoenez, ordezkorik ez zen izendatu.

### **Orain**



Usurbilgo Udala

2026/03/26

2026ko martxoaren 2an EAEko Auzitegi Nagusiko Gobernu Idazkaritzako idatzia jaso da, Usurbilgo Bake epaile ordezkoa izendatzeko dagokion jardunbideari hasera ematea eskatzen da, Botere Judizialeko Lege Organikoko 101. artikulua eta hurrengoek, eta ekainaren 7ko 3/1995 Bake-Epaileei buruzko Araudiak xedatutakoa kontutan hartuta.

Udalbatza Plenoak, gehiengo absolutuz, aipaturiko karguak hautatzeko eskuduntza dauka, eskaerak aurkezteko epea finkatu eta iragan ondoren. Epea finkatu eta gero, iragarkiak Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Epaitegi Dekanoan argitaratu behar dira.

Hautagaiek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- Espainiar Estatuko nazionalitatea izatea.
- Adinez nagusia izatea.
- Botere Judizialeko Lege Organikoko 102., 302., 303. eta 389. artikuluek Kargu judizialerako aurreikusitako ezgaitasun eta bateraezintasun kausak ez edukitzea.

Halaber, honako merituak ere baloratu ahal izango dira: bizilekua, curriculum eta euskararen ezagutza.

Udal idazkariak 2026ko martxoaren 10eko datarekin txostena egin du.

Beraz, 2026ko martxoaren 18ko Antolakuntza batzordeak aho batez (aldeko botoak: Iratxe Begiristain Otegi, Joxe Mari Lizaso Azkonobieta, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo) onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak erabaki hau hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENA:** hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaille ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkeztu ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

**BIGARRENA:** espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

**HIRUGARRENA:** erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.”

Honela izan da bozketa:



Usurbilgo Udala

2026/03/26

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Seguroola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.


## **6.- USURBILGO UDALAREN JABETZAKOA DEN ATSOBAKARREKO HEU 108.3 EXEKUZIO UNITATEKO PD PARTZELA DESAFEKTATZEA (2026IODE0001).**

Batzarkideek Lurraldea batzordearen irizpena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio:

### “AURREKARIAK

2025 urtean Usurbilgo udalak eta Lasarte-Oriako Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten, Lasarte-Oriako Udalaren kirol-instalazioak haunditu eta hobetzeko helburuarekin, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan, Usurbilgo Udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela zuzenean besterentzeko jarduketak eta baldintzak arautzeko Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalen arteko LANKIDETZA-HITZARMENA.

Hitzarmenaren xede den partzela, Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko A-108 ATSOBAKAR eremuko UEU 108.3 partzela da:



— *Hitzarmenean aurreikusitako helburuak betetzeko, Usurbilgo Udalak lurzatiaren kalifikazio juridikoa aldatzeko konpromisoa hartzen du, egun kirol-*



Usurbilgo Udala

2026/03/26

*parke erabilerarako jabari publikokoa dena, horretarako espedientearen izapideak bultzatuz. Horrela, Lasarte-Oriako Udalari ondare-ondasun gisa besterentzeko aukera emango da, hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.*

Horiek horrela, Usurbilgo Udalak partzelaren desafektazio espedientea abiatu du.

### TXOSTEN TEKNIKOA

Gaia aztertu ostean, udal arkitektoak, Nora Erdozia Ibañez andereak, 2026ko martxoaren 11ean honako txostena eman du:

**Esp. zk.: 2026IODE0001**

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**HEU 108.3 EXEKUZIO UNITATEKO UDAL PARTZELA DESAFEKTATZEA**  
**BURUZKO TXOSTENA**

---

GAIA: Usurbilgo Udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela desafektatzea  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: 2026IODE0001  
ESKATZAILEA: Usurbilgo Udala

---

### **AURREKARIAK**


2025 urtean Usurbilgo udalak eta Lasarte-Oriako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Lasarte-Oriako Udalaren kirol-instalazioak haunditu eta hobetzeko helburuarekin, Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan, Usurbilgo Udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela zuzenean besterentzeko jarduketak eta baldintzak arautzeko Lasarte-Oriako eta Usurbilgo Udalen arteko LANKIDETZA-HITZARMENA.

Hitzarmenaren xede den partzela, Usurbilgo Plangintzako Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategineko A-108 ATSOBAKAR eremuko UEU 108.3 partzela da:



Usurbilgo Udala

2026/03/26



Hitzarmenaren baitan, Usurbilgo Udalaren konpromisoetako bat honakoa zen:

— *Hitzarmenean aurreikusitako helburuak betetzeko, Usurbilgo Udalak lurzatiaren kalifikazio juridikoa aldatzeko konpromisoa hartzen du, egun kirol-parke erabilerarako jabari publikokoa dena, horretarako espedientearen izapideak bultzatuz. Horrela, Lasarte-Oriako Udalarik ondare-ondasun gisa besterentzeko aukera emango da, hitzarmen honetan ezarritako baldintzetan.*

Horiek horrela, Usurbilgo Udalak partzelaren desafektazio espedientea abiatu du, eta txosten honen helburua partzelan erabilera publikoa aztertzea da, partzela benetako erabilera publikoari lotuta dagoen jakiteko.

## TXOSTENA

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan, Usurbilgo Udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzelaren inguruan honakoa esan daiteke:

1. A-108 (TE) ATSOBAKAR- eremuari dagozkion hirigintza-aurrekariak Foru Aldundiak 1999ko urtarrilaren 13an baldintzekin emandako 6. Sektorearen Plan Partzialaren behin betiko onarpenean dute jatorria. Plan horren testua 1999ko urtarrilaren 26an argitaratu zen.

Plan Partzial horrek 1997ko abenduaren 23an Diputatuen Kontseiluak onartutako Usurbilgo Arau Subsidiarioetan sektorerako jasotako zehaztapenak jasotzen zituen. Funtsean, antolamendu xehatuko zehaztapenak definitzera zetorren, eta, zehazkiago, hipermerkatu bat, merkataritza-gune bat eta aparkaleku bat ezartzeari buruzkoak.

Plan Partzial horren testuinguruan, zenbait lagapen-partzela formalizatu ziren, estandarren arloko nahitaezko lege-aurreikuspenak osatuz. Egikaritze-unitatearen konpentsazio-proiektua 1999ko maiatzaren 25ean onartu zuen Usurbilgo Udalak.

2. Usurbilgo Udalak 1999 urtean jaso zuen A-108 ATSOBAKAR hirigintza eremuko UEU 108.3 lagapeneko partzela, aipatutako Egikaritze-unitatearen konpentsazio proiektuaren baitan.



Usurbilgo Udala

2026/03/26

**Kirol ekipamenduko erabilera duen zuzkidura partzela da eta 1999 urtean jaso zenetik, partzelan ez da inongo erabilerarik ezarri eta gaur egun berdegune bat da.**

3. Usurbilgo Udalak 2022an Usurbilgo 2022-2026 Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoa egin zuen, herritarrekin parte hartzeko prozesu baten ondoren. Azterketa eta diagnostiko sakon batekin batera, 2022-2026 aldirako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoak Usurbilgo testuinguruan datozen urteetarako helburu estrategikoak eta lan programak definitu eta garatzen ditu.

**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Plan Estrategikoak ez du inolako erabilerarik aurreikusten Usurbilgo Udalaren jabetzakoa den Atsobakarreko UEU 108-3 partzelarako.** Etorkizuneko beharrak egungo instalazioak eta haien ingurunea hobetzeko eta inbertitzeko programetan; auzoetako ekipamenduak indartzean; eta ingurune naturalari lotutako aire zabaleko jardueretan oinarritzen dira.

**Gainera, UEU 108-3 partzeal Lasarte-Oriako udal-mugan dago, Usurbilgo udalerriko bizitegi-inguruneetatik urrun dagoen hirugarren sektoreko merkataritza-ingurunean, bai hirigunetik, bai gainerako bizitegi-auzoetatik.** Izan ere, Usurbilgo udalerriko lurzoruak izan arren, partzelak lotura handiagoa du Lasarteko hirigunearekin Usurbilgoarekin baino.

Aipatu behar da halaber, **Usurbilgo udalerriak erreserbako ekipamenduko beste partzela batzuk dituela, etorkizuneko kirol ekipamendu berrien beharrei erantzuteko.**

4. Aurrez aipatutakoak kontutan hartuta, Usurbilgo Udalaren A-108 ATSOBAKAR hirigintza eremuko HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela ez dago erabilera publiko eraginkor bati lotuta, eta bertan ez da aurreikusten inongo erabilera publikorik.

## **ONDORIOA**

Aurrez aztertu eta aipatu direnak kontutan hartuta, esan daiteke:

Usurbilgo Udalak 1999 urtean jaso zuen A-108 ATSOBAKAR hirigintza eremuko HEU 108.3 Exekuzio Unitateko kirol ekipamenduko PD partzela, eta ordutik, partzelan ez da inoiz inongo erabilerarik ezarri, eta ez da aurreikusten inongo erabilera publikorik ezartzea ere.

Beraz ez dago erabilera publiko eraginkor bati lotuta.

Hauxe da izenpetzen duen teknikariaren iritzia, hobeto oinarritutako beste iritzien kalterik gabe.

Usurbilen, sinadura-datan.  
Udal Arkitektoa

## **LEGE TXOSTENA**

Udal idazkariak berriz, Leire Ucin Soraluze andereak, 2026ko martxoaren 11ean, honako txostena eman du:



## **TXOSTEN JURIDIKOA**

### **HEU 108.3 EXEKUZIO UNITATEKO UDAL PARTZELAREN DESAFEKTAZIOA**

#### **I. AURREKARIAK**

Usurbilgo plangintzako Arau Subsidiarioetan, Diputatuen Kontseiluaren 2004ko irailaren 14ko erabakiaren bidez onartutakoetan, eta 2013ko maiatzaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onartutako testu bateginean (2013ko irailaren 10eko GAO 172 zbk.), A-108 (TE) Atsobakar eremua finkatu zen, hiri-lurzoru gisa sailkatuta eta hirugarren sektoreko merkataritza-lurzoru gisa eta komunitate- ekipamendu gisa kalifikatua. Eredu horretan aldaketa puntual bat egin zen (2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuraren erabakiaren bidez onartua), Lasarteko Udalaren jabetzako 108-6 izeneko lurzati bat sortzeko, kirol- ekipamendurako. Lurzati horretan, Lasarteko udalak futbol eta errugbiko zelai bat, atletismo pista eta aldagelak eraiki ditu. Partzela hori Usurbilgo Udalaren jabetzako da eta kirol- ekipamendu gisa kalifikatua dagoen UEU 108-3ko PD lurzatiaren mugakidea da.

Egoera erregularizatzeko, Usurbilgo eta Lasarteko Udalaren arteko lankidetzahitzarmena onartu zen 2025eko uztailaren 15eko Osoko Bilkuran, Usurbilgo Udalaren jabetzako den UEU 10-3 PD lurzati (4041erregistro-finka) Lasarteko udalari zuzenean esleitzeko eta jarduketak eta baldintzak arautzeko.

Lasarteko udalak lurzati hori erosteko asmoa azaldu du, eta horrela jasotzen da 2025ko uztailaren 15eko Bilkuran onartutako hitzarmenean, zehazki:

“ Zuzenean esleipena eta jabetzaren transmisioa eskritura publiko bidez formalizatuko dira, gehienez ere bi hilabeteko epean, HAPO indarrean jartzen denetik zenbatzen hasita.”

#### **II. OINARRI JURIDIKOAK**

##### **1. Araudi aplikagarria**

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenen – 80. art.: toki-ondasunen araubidea.
- Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren, Ondasunen Erregelamenduari buruzkoa

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, Ondasunen Erregelamenduaren 5. artikulua arabera, herri-ondasunak eta jabari publikoko gainerako ondasunak besterenezinak, enbargaezinak eta preskribaezinak dira, eta ez dute zergarik ordaindu behar. Desafektazioa da ondasun batek jabari publikoko izaera galtzea, erabilera edo zerbitzu publikoari atxikita egoteari uzten dionean, eta ondorioz ondare-ondasun bihurtzea.

Lege bereko 8. artikuluan xedatzen da ondasunak desafektatzeko prozedura:

1. Toki-erakundeen ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, beharrezkoa da bere egokitasuna eta legezkoatasuna egiaztatzen dituen espedienteak.



Usurbilgo Udala

2026/03/26

2. Espedientea ebatzi beharko da, hilabeteko epean jendaurrean jarri ondoren, kasuan kasuko toki-korporazioak, «hartutako erabaki» bidez, eta kideen legezko kopuruaren gehiengo osoak hartu beharko du.

3. Edonola ere, ondasunak toki-erakundearen ondarean sartzea. jabari publikoaren mugaketatik datozenean ere, ez da ulertuko Korporazioko organo eskudunak jasotzen dituen arte, eta hori egiten ez den bitartean, ondasun horiek jabari publikoaren izaera izango dute.

## 2. Eskumena

Desafektazioa erabakitzeko eskumena **Udalbatzari** dagokio, ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzea baita. Gehiengo osoa eskatzen da (aplikagarria den araudiaren arabera).

## 3. Prozedura

Herri-jabariko ondasun bat jaregiteko, beharrezkoa da:

a) Atxikipena kentzearen egokitasuna eta legezkoitasuna egiaztatzen duen administrazio-espeditentea.

Egokitasuna eta legezkoitasuna egiaztatzen ez badira, desafektazioaren deuseztasuna deklaratu ahal izango da. Kalifikazioa aldatzeko aukera egiaztatu beharrak indartu egiten du desafektazioa kanpoko izaeraz eta izaera formalistaz arrazoitzeko eskakizuna, eta, horrez gain, funtsezko moduan justifikatzen da udal-ondasunen izaeraren aldaketa, eta saihestu egiten dira eragiketa interesatuak, desbideratuak edo iruzurrezkoak, eta kaltegarriak ondasunen jabari publikoaren erabilerarako (EAEko Auzitegi Nagusia 05-2-22, EDJ 32373).

b) Hilabetez jendaurrean jartzeko izapidea.

c) Toki-korporazioak desafektatzeko erabakia hartzea, korporazioko legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoarekin.

Desafektatzeak esan nahi du diskrezio-ahala erabili behar dela; izan ere, hori ahalbidetzen duten kasuak ez ditu arau juridikoak arautzen, ezta alde zuretik zehazten ere. Hala ere, desafektazio hori gauzatzeko, interes publikoko benetako helburuak bete behar dira, eta ez aukera edo alternatiba arbitrarioak edo arrazoigabeak gauzatu nahi direnik (Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia 05-2-22, EDJ 32373).

Jabari publikoko ondasun baten desafektazioak berariazkoa izan behar du beti (TS 2-2-04, EDJ 3424).

## III. ONDORIOAK

Aztertutako dokumentazioaren arabera:



Usurbilgo Udala

2026/03/26

- Ondasuna gaur egun ez dago erabilera publiko eraginkor bati lotuta.
- Ez dago desafektazioa eragozten duen arau berezirik.
- Interes publikoaren justifikazioa egokia eta arrazoitua da (adibidez: ondorengo besterentzea, trukea, lagapena edo beste xede publiko baterako berrantolaketa).

Ondorioz, **legez bideragarria da desafektazioa**, betiere aurreikusitako prozedura osoa betetzen bada.

Hori horrela, proposatzen da:

**LEHENA.** HEU 108.3 EXEKUZIO UNITATEKO udal partzelaren desafektazioa ondare-ondasun bihurtzeko.

**BIGARRENA.** Erabakia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzea hilabeteko epean interesdunek alegazioak aurkezteko.

Usurbilen, sinadura elektronikoan adierazitako datan.  
Idazkaria

Guzti hau ikusirik, Lurraldea Batzordeak, 2026ko martxoaren 18an egindako bilkuran, Ainhoa Arrozpide, Iratxe Begiristain, Xabier Otxoa eta Petra Romeroren aldeko botoekin aho batez onartutako irizpena kontutan hartuta, Udalbatza Plenoak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Usurbilgo Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-108 (Atsobakar) eremuan, udalaren jabetzakoa den HEU 108.3 Exekuzio Unitateko PD partzela desafektatzea eta ondorioz ondare-ondasun bihurtzea.

**BIGARRENA:** Desafektazio espedientea hilabeteko epean jendaurrean jartzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitara ematen den biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia Usurbilgo Udaleko iragarki taulan era jarriko da.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri Kontuhartzaitzari eta Ondare teknikariari ematea udal ondasunen erroldan beharrezko aldaketa egiteko."

Honela izan da bozketa:

Alde: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Jon Mikel Azpiazu Zubeldia, Ainhoa Arrozpide Landa, Xabat Beloki Segurola, Iratxe Begiristain Otegi, Xabier Aranburu Leiva, Jose Maria Lizaso Azconobieta, Oskar Santamaria Picabea, Maialen Iñarra Arregi, Xabier Otxoa Muñoz, Josune Urkola Larrarte eta Petra Romero Pozo.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

2026/03/26

## 7- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Xabier Otxoak hitza hartu du eta azken hilabeteetan eskuartean eduki duten gai baten inguruan beraien kezka agertu nahi dutela adierazi du. Belar-mozgailuaren espedientearen agerian geratu dela dio udal gobernuak ez duela modu serio eta garden batetan jokatu, batzordez batzorde lau bertsio desberdin eman dituztela azpimarratu du. Gai honetan kontraesan politikoa bakarrik ez dagoela dio, espedientearen hasieratik gaizki kudeatu dela zehaztu du.

Galdetu du ea kasu hau salbuespena izan den edo udal honen kontratazio publikoan jarduteko modua den.

Gaineratu du aurreko Lurraldea batzordean hirigintza eta obretako kontratu txikien espediente guztiak bidaltzeko eskatu zutela; zazpi egun pasa direla eta oraindik ez dituztela jaso esan du.

Alkateak erantzun dio ez diola onartuko susmoa zabaldu nahi izatea edo iradokitzea udal gobernu honek kontratazio publikoaren legea eta prozedura administratiboa ez dituela betetzen. Era berean, udal langileek ere beraien babes osoa dutela azpimarratu du, irregulartasunik edo legearen kontrakorik ikusten ez duten bitartean.

**Eztabaidarako gaiak amaiturik, alkateak batzarraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:15ean. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin akta hau jaso da, idazkariak izenpetuz, alkatearen oniritziarekin.**